



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/01/27

Bizkaiko Batzar Nagusien Erakunde Adierazpena

Sestaoko Acería Compacta de Bizkaia (ACB) Arcelor Mittal taldearen lantegia behin-behingo itxi egingo dala iragarri izanaren aurrean, honako erakunde adierazpena egiten dabe Bizkaiko Batzar Nagusiek:

Bizkaiko Batzar Nagusiek alkartasun osoa adierazo gura deutsee Sestaoko Arcelor Mittal enpresako langileei eta haren enpresa laguntzaileetakoek, une zailak bizi ditue-eta. Era berean, eskatu egin gura deusie lantegiko zuzendaritzari hasi daitela Enpresa Komiteagazko alkarrizketa prozesuan, horren helburua izanik enpresa ixteak ahalik eta eraginik txikiena izatea eta produkzioa ahalik eta lasterren berreskuratzea, langileen lan-baldintzak bermatuta.

Bizkaiko Batzar Nagusiek azpimarratu egin gura dabe enpresako langileek orokorrean 2009. urtetik hona egin izan daben ahalegina; izan be, alkarrizketearen eta akordioaren bitartez, malgutasuna ahalbideratu eta urteotan sortu izan diran arazo guztiak gainditu ditue. Ildo berean, enpresa zuzendaritzari eskatu egiten jako langileen ordezkariak emongo diran pausoez informaturik izan daizala uneoro eta ezabatu daiala gaur egun milaka familiek eta Ezkerraldeko eskualde osoak bizi daben ziurbakotasuna.

Bizkaiko Batzar Nagusien aburuz, Euskadiko industria-proiektuak, eta batez be eremurik kaltetuenetakoak, sendotuko badira, ezinbestekoa da gizarte- eta erakunde-eragileek esku hartzea; hortaz, eskatu egiten deutsee Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eragile horreekaz koordinatu daitezala Sestaoko Arcelor Mittalen lantegiaren edo Euskadiko beste edozein enpresaren jardunari eustea lortzeko egin daitezkan ekimenak.

Ildo horretatik, bada, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deusie Eusko Jaurlaritzari Europako Batasunaren aurrean bultzatu daizala produkzio zentro hori barriro zabaltzeko eta dumping-ari aurre egiteko balio daien neurriak hartzea, ekonomia batzuk lehia desleiala egiten dabelako. Era berean, energiaren prezioa merketzako neurriak hartzea bultzatzeko be eskatu daiala, prezio horren erruz industria proiektu asko eta milaka lanpostu arriskuan dagoz eta.

Gernikan 2016ko urtarrilaren 27an



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
27/01/2016

Declaración Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia sobre la situación de la ACB en Sestao

Las Juntas Generales de Bizkaia ante el anuncio del cierre temporal de la planta de Acería Compacta de Bizkaia (ACB) en Sestao, perteneciente al grupo Arcelor Mittal, acuerda la siguiente Declaración Institucional:

Las Juntas Generales de Bizkaia expresan su solidaridad total con los trabajadores y trabajadoras de Arcelor Mittal Sestao y de las empresas auxiliares en estos difíciles momentos, e insta a la dirección de la planta a que inicie un proceso de conversaciones con el Comité de Empresa para acordar las medidas necesarias que posibiliten la minimización del impacto de esta medida y se recupere cuanto antes la producción, garantizando las condiciones laborales de la plantilla.

Las Juntas Generales de Bizkaia destacan el esfuerzo realizado desde 2009 por el conjunto de las personas empleadas de la empresa, que han facilitado mediante el diálogo y el acuerdo diversas medidas de flexibilidad que han permitido superar todos los problemas que han ido surgiendo en estos años. En este sentido, pide a la dirección de la empresa que mantenga permanentemente informados a los representantes de los y las trabajadores y trabajadoras sobre todos los pasos que vaya a dar y elimine la incertidumbre en la que viven hoy centenares de familias y toda la comarca de la Margen Izquierda

Las Juntas Generales de Bizkaia consideran imprescindible que el afianzamiento de los proyectos industriales en Euskadi, y especialmente en zonas desfavorecidas, se consiga con la implicación de los agentes sociales e institucionales, por lo que solicita al Gobierno vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia que se coordine con dichos agentes en todas las actuaciones que lleve adelante para defender el mantenimiento de la actividad en la planta de Arcelor Mittal en Sestao o en cualquier otra de cualquier empresa en el País Vasco.

En este sentido, las Juntas Generales de Bizkaia piden al Gobierno vasco que impulse ante la Unión Europea medidas que contribuyan a la reapertura de este centro de producción y medidas antidumping que frenen la competencia desleal que realizan algunas economías, así como la adopción de medidas de revisión del precio de la energía que hoy está comprometiendo numerosos proyectos industriales y miles de puestos de trabajo.

En Gernika, a 27 de enero de 2016.